

Getxo >MEETING<



Ekainak 1. Getxo MEETINGen laburpena Erabakiak hartu behar ditut!

Hemen duzu Getxo MEETING saio berezi baten laburpena. Ezin izan bazinen etorri, inspiratzeko balioko dizu, eta etortzeko aukera izan bazenuen, ziur lagunduko dizula gako batzuk gogoratzen.

Zer egin genuen: Art Thinking, irudi bidez pentsatzeko metodologia. GetxoPhotoko irudiak aztertu genituen, bakoitzaren enpresan pentsatzeko.

Honako hauei buruz aritu ginen:

- Zer den erabakiak hartzea: prozesu hori osatzen duten alderdiak.
- Zein den erabakiak ez hartzearen kostua.
- Nola minimizatu dezakegun erabakiak hartzeko beldurra.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica>

Jarrai gaitzazu: / Síguenos en:



- Zein den egungo egoera behatu beharra: fokua zein den ulertu beharra, zein den konpondu nahi dugun erronka.
- Zein den nahi den egoera imajinatzea: Nahi den helburu bat zein izango litzatekeen identifikatzea, bistaratzea... garrantzitsua da buruan txertatu ahal izateko.
- Zerk eragozten didan erabakiak hartzea pentsatzea: Askotan, aurrerapauso bat eman nahi izaten dugu, baina barneko edo kanpoko faktore batek aurrera egitea eragozten digu. Identifikatzea oso interesgarria izan daiteke.

Ondorio batzuk:

- Zerbait egin nahi badut, baina jaurtitzeko beldurra badut, probak edo prototipo txikiak egitea lagungarria izan daiteke.
- Batzuetan, erabaki zuzena hartzea baino garrantzitsuagoa da erabaki bat hartzea. Denbora pasatzen uzteak eta prokrastinatzeak kostu psikologikoa izan dezake. Frustrazioa eragin dezake.
- Batzuetan ez gaude egoera egokian erabakia hartu ahal izateko. Ez dugu informazio nahikorik. Orduan, hobe da data bat jarri eta ahaztea. Adibidez: “udaren ostean, iraileko lehen astean, erabakiko dut webgunea berritzen dudan ala ez”. Horrela, data hori iristen den bitartean, gaia ahaztu dezakezu. Eta bideaz gozatu.
- Norbaitekin gaiari buruz hitz egitea edo idaztea, besteak beste, erabakiak hartzean sortzen den korapiloa desagiteko moduak dira.

Eta zuk, zer behar duzu zure enpresan erabakiak hartzeko?

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica>



Jarrai gaitzazu: / Síguenos en: